

EIBARREN AUTOBUSEN ZERBITZUAREN ALDAKETA INAUTERIETAN ZEHAR

Euskotrenek otsailaren 28an eta martxoaren 2an eta 3an Ermua-Donostia (AP-8), Mallabia-Ondarroa eta Udalbus lineetako autobus zerbitzua aldatuko du, Eibarko Inauteriak direla eta.

Ostegunean, otsailaren 28an, 14:00ak eta 22:00ak bitartean DB02 Ermua-Donostia (AP-8) eta DB04 Mallabia-Ondarroa lineetako zerbitzuak aldatuko dira. Horrez gain, larunbatean, martxoaren 2an eta igandean, martxoaren 3an, 12:00ak eta 22:00ak bitartean aldatuko dira. Aldaketa horiek, Inauteriak direla eta, Eibarko erdigunea oinezkoentzako jarriko direlako egingo dira. Hori dela eta, autobusak asteburuetan bezala ibiliko dira.

Beste alde batetik, Eibarko udal autobus zerbitzuan, UDALBUSen, honako zirkulazio hauek kendu egingo dira:

1. Osteguna, otsailak 28:

- Amaña-Azitain: 14:25 eta 18:55
- Amaña-Tekniker: 16:55
- Amaña-Saratsuegi: 17:55
- Saratsuegi-Amaña: 14:27 eta 18:27
- Tekniker-Amaña: 17:25

2. Larunbata, martxoak 2:

- Amaña-Azitain: 12:00 eta 12:40
- Azitain-Amaña: 12:20 eta 13:00

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakia erabil dezakete. Konpainiaren www.euskotren.eus webgunean eta twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunean ere jaso dezakete informazioa.

Igorpen data: asteartea, 2019ko otsailaren 26a

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO